

Aur-atzeratuen eta animalien eskubideak

Alderdi, 265. zk., 1971-07.

Gizonaren eskubideaz aaztuta bizi geran mundu legor ontan ba da, ala ere animalien eta aur-atzeratuen eskubideetaz kezkatzen dena.

Españiko izparringietan egun oietan agertu danez:

"Españia (leen Españia), Canada, Costa Rica, Chipre, Filipinas, Prantzia, Gabon, Japoi, Bretaña Aundia eta Sueziak azaldu die Sozial arazoetako Erri-Elkartuak duten erakundeari berebiziko ("magistral") agiri bat; eta agiri onek diona ogei eta bi errik ontzat artu dute".

Erri oiek agiri ontan egiten duten *aur-atzeratuen* aldeko eskabidea auxe da:

"Giza-eskubide nagusi guzien babesia izan dezatela; sendagille eta diru-laguntza ere bai, eta baita inork giza-maillaz jeixtetik defendituko dituen garanti bat ere."

Uste berekoak gera, noski, aur-elbarritu edo atzeratuen alde artutako neurri guzietan.

Baiña: Elbarriak eta atzeratuak izatera allatu ez geranontzat, zer?

Beste au Prantzitik dator.

"Prantziko gobernuari datorren illean erakutsiko zaion lege-gaietako bat animaliak dituzten eskubidean agiri bat da.

Erakunde onek Parisen duen etxe-nagusian 140.000 karta artu dira animalia oiei giza-antzeko ("humain") bizi-bide legezko bat emateko eskatzen ari den agiri onen alde".

Animalia oiei eskubide oiek zaindu nai dizkiete:

"1) Bere naturalezak eskatzen dien bezala bizitzeko eskubidea; 2) animalia-moten artean bat ere ez dagoela osorik gaizkille bezala artzerik; 3) animalia-moten arteko ekilibrioaren oiñarri bat; denen konserbaziorako legeak onartu bear direla; gizon guziek etxean animaliak eukitzeko eskubidea izan bear duela, eta 5) inork animaliei kalterik egiteko edo miñik emateko eragozpena legetu bear dela.

Ta gu ez gera, noski, oiñarri oien aurka; guk ere maite bait ditugu gure pitxitxiak, eta baita gure bai, zezen (!), idi eta astoak ere.

Baiña: animaliak ez geranontzat, zer?